

Donostia, 2021eko ekainaren 4a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### MOZIO ARRUNTA, AÑORGAKO BIDEGORRIAREN MOZKETA DELA-ETA

Aitzole Araneta Elkarrekin Donostia udal talde politikoko bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, AÑORGAKO BIDEGORRIAREN MOZKETA DELA-ETA, honako MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Duela hiru hilabete baino gehiago, Añorgako Pedro José kaleko lur-mugimendu batek lur-jausi txiki bat eragin zuen, eta harriak erori ziren bidegorrira. Harrezkero, pasealekuko sarbidea moztuta egon da, luizi gehiago izateko arriskua dela-eta. Nahiz eta bideak hilabete batzuk daramatza moztuta, ez zaie beste alternatibarik eskaini egunero erabiltzen zutenei.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du ingurua egonkortzeko lanak egiten ari dela. Hala ere, egoera luzatzen ari da, eta inguruko bizilagunek salatu dute ez zaiela inongo informaziorik ematen.

Gainera, bidea ixteko erabiltzen diren seinale eta itxiturak jendeak oso erraz kentzen ditu bidegorria erabiltzen jarraitzeko. Beraz, itxitura denbora luzez eta alternatibarik gabe luzatzearen beste ondorioetako bat da badela bidea erabiltzen jarraitzea erabakitzen duen jendea, horrek segurtasun-falta dakarren arren.

Hori dela-eta, honako mozio hau aurkezten dugu:

## MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari ahalik eta lasterren egin ditzala Añorgako bidegorria irekitzeko beharrezkoak diren lanak.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari inguruko bizilagunei jakinarazteko zer lan-plangintza duen eta noiz aurreikusten duen bidegorria irekitzea.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari aldi baterako segurtasun-neurriak azter ditzala, behin betiko obrak egiten diren bitartean bidegorria irekita egon dadin, edo, bestela, behar bezala itxi dezala, behar diren baliabide eta berme guztiekin.

Aitzole Araneta Zinkunegi,  
Elkarrekin Donostiako bozeramailea